

ELGOIBAR - 779. zenb. - XVIII urtea - 2011-04-15

B

BARREN

TOKIKOM





**“Alkoholak bizitzeko gogoa
ere kendu zidan”**

Rafael Rodriguez

LAGUNAK KOLTXOI DENDA-TEXTIL HOGAR

KOLTXOI AUKERA HANDIAGOA DUGU! ETORRI ETA %20ra ARTEKO BEHERAPENA IZANGO DUZU KOLTXOI ETA OHE KUTXETAN!

Koltxoi marka guztiak ditugu, bilatzen duzuna ez baduzu hemen topatzen ekarri egingo dizugu.
Anima zaitez, eta zatoz bisitan.



San Roke kalea, 20 - Tel.: 943 744 457 - ELGOIBAR - www.textillagunak.com



Grinez beteriko kluba

Gogoratzen dut nola hasi zen kontu guzti hau. Metro t'erdiko 17 urteko mutila, tabernetan sartzeko karneta erakutsi behar zuena, Mintxetako futbol zelai erraldoian galduta. Jokatzeko minutu gutxi, eta gogo handia. Gogo horrekin, ene anaiaren pausuak jarraituz, nire tamainako zelai batera hurbildu nintzen, areto futbol zelaira alegia.

Euri eta ile dezente erori da ordutik. Hala ere, Joserra presidentearen hitzak berdinak izan dira urte guzti hauetan: "Gipuzkoako areto futboleko talderik indartsuena izan behar gara, baita Euskal Herriko indartsuenak, zer demontre!" Erronka galant hori lortzeko gauza asko behar eta beharko dira tartean, noski, baina bat beste guztien gainetik behar da: GRINA. Ilusioan eta esfortzuan oinarritutako grina, nik nire taldekide, entrenatzaile eta zuzendaritza osatzen dutenen begietan ikusi izan dudana.

Pasa den larunbatean erdietsi genuen Nazional A ligara igotzea. Egon ginen, bai, liga honetan duela urte batzuk, baina tamalez ezin izan genion postuari eutsi, eta pare bat jaitsiera gehiago sufritu genituen.

Zorigaitzeko horri adore berpiztuarekin aurre egin genion. Nazional B mailara igo ziren Rubioren mutilak 2008. urtean. Hirugarren saiakeran igo gara orain, talde indartsuagoa bihurtuz, ez bakarrik igoeragatik, niretzako garrantzi handiagoa duen beste arlo bat landu dugulako

baizik. Bi talde izatetik bost talde dituen kluba osatzera pasatu gara. Gure harrobia: infantilak, kadeteak eta jubenilak. Beraz, jada etor daiteke metro t'erdiko mutil koxkorren bat bosteko horretan nire postua bereganatzera. Hala espero.



David Garrido

"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan: 943 744 112 edo barren@elgoibarkoizarra.com

"Bi talde izatetik bost talde dituen kluba osatzera pasatu gara"

ESKERTZA

PAQUI ROA ROSILLO



*Hil gabe hil zinen, hemen zaudelako.
Zure gorputza joan da, baina zure arimak hemen jarraitzen du.
Zu zaude gure bihotzaren oroimen bakoitzean.
Beti ikusi nahiko zaitugu, eta hori izango da gure ametsa.
Gure bihotzak negar egiten du joan zarelako.
Eta min horrek gure izatea mintzen du.
Baina beti bilatzen duzu zu nola gogoratu.
Eta horregaitik ezin izango zaitugu inoiz ahaztu.*



Zure familiaren partez

Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com


BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARRE**nek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enrantzukunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia
HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia
PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zaloa Arnaiz
MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue
KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz.
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



GUTUNAK



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Tabakoaren legea

Orain dela egun batzuk, Ameriketako hotel batean ostatu hartuta egon zenean, Sabina abeslariak zigarro bat piztu zuen hotel barruan, ezer gertatuko ez balitz bezala, eta hotelaren ja-beak 8.000 euroko isuna ordaindu behar izan du horregatik.

Hemen, gure herrian, fisikoki eta psikologikoki hazten ari diren gaztetxoek (13 urtetik hasi eta 14,15...urte artekoek) ura balitz bezala edaten dituzte alkoholdun edariak. Batzuek supermerkatuan erosten dituzte, beste batzuek tabernetan, eta, badihuri, gure herri honetan ez dagoela inolako lege edo araurik hori kontrolatzeko.

Ezin al da legea betearazi?

Ezin al da legea betetzen ez duena zigortu?

Gure gazteak kanpora irten behar dira, eta gozatu egin behar dute, jakina, baina gure tabernariak ezin diete legez debekatuta dauden edariak zerbitzatu. Hemen, baina, beste leku askotan bezala, legearen artikulua horri ez zaio jaramonik egiten; hautsak hartua du nonbait.

A.U. c

XVIII. J.Gurrutxaga Krosa

Ikastolaren izenean eskerrak eman nahi dizkiegu joan den igandean, apirilaren 10ean, ospatutako XVIII. J. Gurrutxaga Krosa antolatzen lagundu zuten guztiei: Eroski bidaiak Eibar, Aterpe taberna, Eroski, Netto, Createch Medical, Aldatz, Bidasolo farmazia, Biena aroztegia, Castrillejo estankoa, Irish Pub Madigans, Jai-alai taberna, Kala loradenda, Ongi Iturgintza, Urnabitza aseguruak, Egotoki, Ametsa, Antxustegi zeramikak, Aranburu bitxitegia, Arkupe, Astigarraga Kirolak, Azpeleta, Beitia-Arriola hortz klinika, Blok dekorazioak, Doña Mercedes okindegia, Edurne arraindegia, Eizagirre okindegia, Fadek ileapaindegia, Ibamar, Idama ileapaindegia, Ipintza, Iriondo Kirolak, Kaia, Karkizano, King-Kong kafetegia, Lanbroa, Larrañaga autoeskola, Leigar, Lete, Mekanosa, Muruamendiarrak, Oinez zapatadenda, Osoro zapatadenda, Patxi harategia, Presst, Sigma jatetxea, Usua, Uzuri optika, Zurich aseguruak, Zazpi informatika, Iriondo taberna, Gabi jatetxea, King Kong kafetegia, Ikane arropadenda, Alire estetika, Antonio ileapaindegia, Arauri lurrindegia, Arkauz, Armueta, Gautxo taberna, Garate jantzidenda, Goar aholkularitza, Gloria, Gorosti-

za, Landa harategia, Lau, Lerun taberna (Netto), Lizzy, Lodoso Arotz.metalikoa, Sua taberna, Sur-ya, Sugar, Txariduna, Txiriboga eta batez ere Elgoibarko Udala, Elgoibarko Udal Kirol Patronatua, IMH, Danobat, Goiti, Beristain logistika banaketa, Coca Cola, Alzolako Urak, El Diario Vasco eta babesleari, Kutxari. Bestalde eskerrik beroenak parte hartu duten neska-mutilei.

Datorren urtean apirilaren 22an ospatuko den XIX. J. Gurrutxaga Krosa antolatzen laguntzeko prest egongo zaretelakoan, agur bero bat.

J. Gurrutxaga Kroseko batzordea c

OHARRA

Iritsi dira Aste Santuko oporrak **BARRE**nera, eta ondorioz, datorren **barixakuan** ez dugu astekaria kalera-tuko. Hurrengo alea apirilaren 29an jasoko duzue.



Anjel
Bazterretxea

Beriz ere hemen gara geure txanda betetzeko asmoz. Ez dakit noruntz jo: Apokalipsiruntz edo Txistelandiaruntz. Apokalipsi aldera joko nuke, norbaitek gure momentu historikoari buruz zerbait galdetuko balit. Eta Txistelandi aldera joko nuke, oraindik umore beltz batekin gure munduari begiratuko banio: *Tsunami*, Afrikako gerrak, palestinarrak, Israel, langabezia, gure herriko korapiloak eta abar luze eta penagarria. Eta Apokalipsi beltz, garratz eta triste horren soluzioa non ote dagoen galdezka gabiltza. Orain ez daukat asmorik analisi sakon bat egiteko. Bate-tik, nire Talaixatik ez direlako egoera honen sustraiak behar bezala ikusten, eta ikusiko banituzke ere, kapazidaderik ez daukadala-ko horrelako kontuetan sakon sartzeko.



Iñigo
Lazkano

Nik oso argi dakat nora joko deten: txistelandiara! Dударik be, gaiñera! Bizitza bat bakarra dakagu, eta gero eta argixago ikusten dot ahal dan onduen aprobetxau bihar dala, edozein momentutan izugarrizko buelta bat eman geinkelako, eta normalian, gaiñera, txarrerako izaten denez, daukagunaz ondo disfrutau eta gure ingurukuei ere disfrutau arazi egin bihar diegu.

Hain errez esan deten hau betetzeko, noski, umore ona ezinbestekotzat jotzen det, eta nahiz eta zorigaitz eta kalamidarez ingurauta gauden, beti dago tartetxo bat gure eguneroko kargak arinduko dittuan xeibrekerixaren bat egin edo esateko. Besterik ez bada, eguneroko bizitzan pasatzen jakuzen gertakariak umore onez hartu eta alderdi graziosua ateratzen saiatuko bagiña, seguru nago hobeto biziko giñala, estres gutxiagorekin.

Honekin ez det esan nahi Japonian txiste kontalarixen munduko txapelketia organizau bihar danik; badake aurretixaukorik! Zorigaitz hórrek luze josten debenez ezin dala hain epe luzia tunel ilun batian sartuta egon. Egunerokuan aurrera tiratzeko eta sortzen jakuzen oztopuak gainditzten juateko umore ona eta optimista izatia oso ondo etortzen dirala baizik.

Honen adibide mundial bat emango dizut. Oin dala urte bete irakurri nuan, eta orduan kriston grazia egin zidan, baiña oindiok ere akordau eta egoeria analizatzen jartzen naizen bakoitzian...

“Gaurko egoera ikusita, zer esango dugu: irribarre bat mesedez, akaso?”

Orduan, zer gelditzen zaigu? Azaleko analisi batzuk egin edo komentatu, eta hor konpon esatea? Apokalipsi gogor honen aurrean gure ezina ikusi ondoren, Txistelandiara joko dut. Aspaldiko *La Codorniz* astekarian Chumi Chumez Donostiako karikaturistaren txiste bat agertu zen: gizon bat gillotina baten azpian zain zegoen, bere heriotz kondena betetzeko asmoz. Argazkilari bat hurbildu zitzaion, eta halaxe esan zion: “*Una sonrisa por favor?*”. Gure gaurko egoera ikusita zer esango diogu gure buruari: *irribarre bat mesedez akaso?*: Esnatu eta beste martxa bat eman gure momentu gogor eta latz honi. Orduan: apokalipsi edo txistelandia alai bat. Gero arte.

“Sortzen jakuzen oztopuak gainditzeko umore ona oso ondo etortzen da”

Antonio Mingoten anekdota bat da. Jada 82 urte daukaz, eta ez jako asko falta bestaldera juateko, baiña oso asumituta dauka itxuria danez. Bere familixakuegatik sentitzen omen dau penia, asko maitte debelako. Ba egoera honi bueltia emateko zer okurriduko berari eta... biñeta bat egittia. Bere lapidia dibujau omen zuan han, eta epitafiuan aspaldixan irakurri deten esaldirik onena ipini zuan: “Barkatu! Ez juat berriz egingo” jajaja... Egixa berdaderua, *ya lo creo!*



MEKANOSA
Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



PINTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
Xilifon. 2 - 3.sotua 943 74 36 52 - 74 27 89
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

Orain dela urtebete Saturixo parean auto istripuan hil ziren lau gazteak gogora ekarri dituzte haien lagunek

Istripuaren urteurrenean lore sorta bat jarri zuten istripua izan zen lekuan

Apirilaren 8an bete zen urtebete Eibar-ko lau gazte auto istripuan hil zirene-
tik, eta haien lagunek gogora ekarri zituzten. Eibar eta Elgoibar artean izan zen istripua, Saturixo parean. 16 eta 17 urteko hiru neska, eta 20 urteko mutil bat zihoazen auto batean, eta furgoneta baten kontra jo zuen aurrez aurre. Furgonetako bikotea eta umea zauritu egin ziren, baina beste autoko lau gazteak hil egin ziren. 17 urteko neska istripuaren momentuan hil zen, eta gainerakoak ospitalean hil ziren. Istripua izan zen leku berean jarri zuten lagunek lore sorta bat joan zen barixakuan. Une hunkigarria izan zen.



Larraitz Uranga Lanbide Heziketako Olinpiaden finalerako sailkatu da

Larraitz Uranga IMHko ikasleak urrezko domina irabazi du Spainskills Lanbide Heziketako Olinpiadetan, CNC Fresa proban. Mekanizazio bidezko produkzioko ikaslea da Larraskandako (Azkoitia) Larraitz Uranga. Elgoibarren egin ziren Euskoskills probetan irabazi eta gero, joan den asteburuan Spainskills proban parte hartu zuen Madrilan. Espainia guztitik joandako 260 ikasle inguruk parte hartu zuten proban, 32 espezialitatetan banatuta. Gipuzkoa, Bizkai eta Arabatik 17 ikaslek parte hartu zuten, eta urrezko bi domina lortu zituzten; Larraitz Urangak bata, eta Andoaingo La Salle Berrozpeko Gaizka Dominguezek, bestea, CAD diseinu mekanikoan. Bi ikasle horiek Lanbide Heziketako Olinpiaden finalean hartuko dute parte urrian, Londresen.



Mikel Ibañez preso ohia hil zen apirilaren 7an

Gaixotasun larri baten ondorioz hil zen joan zen astean Mikel Ibañez preso ohia. Apirilaren 7an aurkitu zuen gorpua Mikel Ibañezen semeak, euren Eibarko etxean. Zapatuan egin zioten hileta elizkizuna, eta domekan haren aldeko manifestazioa egin zuten Elgoibarren.

Mikel Ibañez 2008ko maiatzean utzi zuten baldintzapean aske, bere osasun egoera aintzat hartuta. Espetxean zela ospitaleratu egin behar izan zuten, eta minbizia zuela jakin zuen orduan. Ebaketa egin eta espetxera eraman zuten berriro. Diabetesa eta soriasia ere izan zituen, eta tratamenterik ez zuela jaso salatu du Amnistiaren Aldeko Mugimenduak. 2010eko irailetik aske zegoen, baina kontrolpean.

Udal Hauteskundeak



“Hauteskundeak irabazteko” lantaldea aurkeztu zuen joan zen egunean EAJk. “Udala kudeatzeko lantaldea, euskalduna, herritarra eta adin anitzekoa. Ilusioz beteriko pertsoenez osatutako taldea”. Honako hauek dira zerrrenda osatuko dutenak: Alfredo Etxeberria, Ricardo Garate, Amaia Txurruka, Eneko Etxeberria, Bittori Zabala, Ane Beitia, Joseba Arribabalaga, Encarni Migales, Inga Segurola, Iñigo Iturbe, Belen Elorza, Alberto Iriondo, Iñaki Iriondo, Elo Zubiaurre, Juan Carlos Arrieta, Gemma Monreal, Haritz Arrizabalaga, Susana Etxabe, Gotzon Arrieta eta Agurtzane Arriola. Legealdiko ildo nagusiak azaldu zituen Alfredo Etxeberriak, eta EAJk nagusiki “lanerako gogoa” eskaintzen duela adierazi zuen: “Herritarrei beharrezkoak ditugun ilusioa, esperantza eta konfiantza eman nahi diegu, eta, horretarako, formula bakarra dago: lan, lan eta lan”. Azkeneko legealdiko lan eskema erabiliko dutela zehaztu zuen, eta EAJ elkarlanerako prest dagoela ere esan zuen, beti ere “erantzukizunez, errespetuz, hitza betez, eta zintotasunez jokatzeko ardura hartzen dutenekin”.



Hauteskundeak testuinguru berezian egingo direla esan zuen Ovidio Campellok, legealdi berrirako taldearen aurkezpenean: “40 urtetako diktadura faxista eta 30 urtetako gobernu nazionalisten ostean, erabat ezkertiarra den Gobernuak gidatzen du, estreinakoz, Jaurlaritzak. Eta igarri da. Patxi Lopezen gobernuak aldaketa ekarri du; aurrerapena, gizarteratzea eta bateratzea. Horrek guztiak PSEK Elgoibarren lortu izan dituen emaitzak mantendu eta hobetzen lagunduko digu”. Legealdi berrirako PSE-EEK aurkeztuko duen programa oraindik itxi gabe daukatela onartu zuen Campellok, baina ildo nagusiak argi daukatela gaineratu zuen: “Lanpostuen defentsan eta lanpostu berriak sortzeko lanean jarraituko dugu”. Honako hauek osatzen dute PSE-EEren lantaldea: Ovidio Campello, Fernando Suarez, Nerea Alustiza, Francisco Egea, Maria Jose Otaño, Angel Cabezuelo, Juan Jose Bastarrika, Isabel Vazquez, Maria Soledad Erausquin, Jose Carlos Rodriguez, Maria Amalia Sanchez, Joseba Fernandez, Manuel Fernandez, Julian Garmendia, Gloria Piedad Garcia, Maria Marta Otaño eta Manuel Jauregui.

Sukaldaritza energetikoaren gaineko ikastaro praktikoa, maiatzaren 7an

Kemen belardendak antolatuta, sukaldaritza energetikoari buruzko ikastaro praktikoa eskainiko du Marta Franciscok, elikadura naturalean eta bioakupunturan adituak, maiatzaren 7an. Zortzi orduko ikastaroa izango da, 10:00etatik 18:00etara. Interesatuak Kemen belardendan (943 744 031) jaso dezakete informazio gehiago, eta baita ikastarorako izena eman ere.

Jubilatuena Biltokiko taberna-kafetegia esleitzeko lehiaketa

Elgoibarko Jubilatuen eta Pentsiodunen Biltokiko taberna-kafetegia esleitzeko deialdia argitaratuko da gaur Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Lehiaketan parte hartzeko pleguak www.elgoibar.org orrian daude erabilgarri, eta apirilaren 26a da proposamenak aurkezteko azken eguna. Informazio gehiago behar izanez gero, Elgoibarko Udalaren Arreta Bulegoan eska daiteke.

Udan Saharako haurrak hartzeko programa abian

Udan Mendebaldeko Saharako haurrak hartzeko kanpaina bultzatuko du Elgoibarko Udalak. Programa honetan parte hartu nahi dutenek Elgoibarko udaletxeko Gizarte Ongizate Sailarekin harremanetan jarri behar dira maiatzaren 10a baino lehen. Kanpaina hau Euskadiko Frente Polisarioaren ordezkariak antolatzen du.

Bikaintasun Ekintzaileari Saria Mendaroko Grupo Egile XXI enpresarentzat

Apirilaren 7an banatu zituzten Eibarren Toribio Etxeberria sariak, eta Mendaroko Grupo Egile XXI enpresak jaso zuen Bikaintasun Ekintzaileari Aitortza Saria. Toribio Etxeberria Saria 1990ean sortu zuten, eta enpresa alorrean Euskal Herriko sari garrantzitsuenak dira.

Argazkiak: BARREN eta Azkue

Elgoibartik pasata, Donostiara bidean da Korrika, euskararen aldeko lasterketa

Maitatu, ikasi, ari... *Euskalakarri!* Ilemapean iritsi zen Korrika Elgoibarrera, eguaztenez. Giro aparta izan zen herrian, euskararen aldeko ekimenari ongietorria emateko, eta jendetza handiak egin zuen Korrikaren leloarekin bat. Azkarateko tunelean hartu zuten lekukoa Lagunak pilota eskolakoek, eta Saturixon entregatu zieten Haizea taldekoek soraluzetarrei. Tartean, dozenaka euskaltzalek erabili zuten lekukoa eskuz esku. Korrika ofiziala iritsi aurretik, baina, Korrika Txikia eta Korrika Gaztea ere egin ziren Elgoibarren. IMHko, BHI Institutuko eta Mekako ikasleak izan ziren euskararen alde saltaka irten ziren lehenengoak, eta Ikastolako eta Herri Eskolako 5 eta 12 urte bitarteko umeek hartu zieten gero erreleboa, Korrika Txikian. Bideoak eta argazki gehiago ikusteko: www.elgoibarren.net



Lagunak pilota eskola.



CD Elgoibar.



Danobat.



LAB-Alkorta.



IMH, Herri Eskola, B.E. Institutua eta Haur Eskola.



Ikastolako langileak, gurasoak eta ikasleak.



Iratzarri.



Mautitxa txaranga.



Gazte Asanblada.



Haritz dantza taldea.



Txankakua merkatarri elkarte.



Elgoibarko Udaleko Euskara Salla.



Javier Zengotita eta Felix Etxeberria.



EA.



EAJ.



Ezker Abertzalea.



Aralar.



Elgoibarko Izarra.



Sanlo eskubaloi taldea.



AEK euskaltegia.



Haizea emakume taldea.



Erretratu zaharra



1980

Aste honetako erretratu zaharra Reyes Zelaia bidali du BARRENERA. Elgoibarko Ikastolako kirol talde bat agertzen da erretratuan. Eskolarteko jokoetan ateratako argazkia da, eskubaloi txapelketako finalean, hain zuzen ere. Eibarko Untzaga plazan jokatutako zuten partida Ikastolako neska hauek, Eibarko Aldatze ikastetxeko taldearen kontra. Emozioz beteriko norgehiagoka izan zela adierazi dute protagonistek, eta azkenean, elgoibartarrek irabazi zuten partida, gol bateko aldeaz. Urrezko domina soinean jantzita etxeratu ziren ikastolako neskak. Gogora ditzagun zein diren erretratuan azaltzen direnak:

Goian, ezkerretik eskubira: Bego Zubiaurre, Irune Ulazia, Iñaki Saez (entrenatzailea), Magi Arrizabalaga, Susana Azpilikueta eta Olga Isasmendi. **Behean:** Andrea Arriola, Nerea Gabilondo, Isabel Alberdi, Ana Sota eta Reyes Zelaia.

II. eta IV. URTEURRENAK



2009ko apirilaren 16an hil zen

JUANA BARRUTIA GABILONDO
eta
RAMON CANALES TRUEBA

Zuen oroimenak indartzen gaitu



2007ko maiatzaren 2an hil zen

RAFAEL RODRIGUEZ

“Infernua bizi izan dut”

Alkoholaren gatibu eman ditu azkeneko urteak Rafael Rodriguez elgoibartarrak. “Infernua” ezagutu du, eta, oharkabean, infernu bihurtu du inguruko egunerokoa. Hala ere, oinazealdi gogor eta luzearen ostean, argia ikusi du azkenean, eta lasaitasuna itzuli da haien etxera. Proyecto Hombre erakundeak bizia itzuli diola dio, eta atzera begiratzea mingarria zaion arren, berak bizitako publikoki kontatzera ausartu da, alkoholaren menpe bizi direnentzako lagungarri izan daitekeelakoan.

Ainara Argoitia

Dena galdu nuen, baita bizitzeko gogoa ere. Lagunak ere galdu nituen, eta herrian zokoratu egin ninduten. Mozkorra eta erasotzaila nintzela esaten zuten, eta egiaz halaxe nintzen. Alkoholak egin ninduen halakoa”. Rafael Rodriguezen berbak dira, urteetan alkoholaren menpe bizi izan den 44 urteko gizonarenak. 2009. urtean alkoholarekiko menpekotasun kronikoa diagnostikatu zioten, eta ordutik etengabeko borrokan dihardu. Proyecto Hombre izena eman zuenetik ez du alkohol tanta bat edan, eta sendagiria eman diote han, baina jakin badaki deskuidu txiki bat nahikoa dela berriro ere alkoholaren atzaparretan jausteko, eta, ondorioz, erne egon beharra dagoela. “Neure buruaren jabe naiz, eta kontrolpean dut arazoa’ bezalako esaldiak gezur hutsak dira. Alkoholik gabeko zerbeza bat hartzen hasi, eta kupel osoa edaten amaitzen duzu. Berdin beste drogekin ere. Speed marra bat sartu, eta le-ro jarraitu osoa sartzan bukatzen duzu. Hemen ez dago erdibiderik”.

Gazte hasi zen alkohola edaten Rafael, 14 bat urterekin. Beste askoren antzera, “ongi pasatzeko” edaten zuen. Oker zegoen, baina. Etxean ere ez zuen besterik ikusi, ha-



la ere. Aita eta aitona alkoholikoak zituen [gibe-leko zirosiak jota hil ziren biak ala biak]. Ezkondu eta gurasoen etxetik irtetea ere ez zuen zortetik izan. “Nire lehenengo emazteak ezkutuan edaten zuen. Alkoholikoak ginen biok, eta menpekotasun horrek erabat usteldu zuen gure arteko harremana. Elkar hil aurretik, 2000. urtean harreman hori lagatzea erabaki nuen”, aitortu du. Madrildik Elgoiba-

rrera etorri zenean, baina, nabarmen egin zuen okerrera Rafaelen egoerak. 2006. urte-tik 2009ra bitartean erabat galdu eta zabartu zen, bere buruaz beste egiten ere saiatu zen birritan, eta emaztea, familia eta aterpea izan arren, kalean bizitzera ere iritsi zela aitortu du. “Jada ez nuen lorik egiten, eta jan ere apenas egiten nuen. Txakurrari ematen nion jatekoa. Alkoholak besterik ez neukan nik zainetan”.

Goizean goiz jaiki, eta kalera irteteaz bat, sei bat garagardo lata erosi, praka poltsikoetan gorde, eta bata bestearen atzetik husten zituen, ibaira begira jarrita. "Lehenengoarekin gomitoka egiten nuen beti, baina gorputzaren erreakzio bat zela sinetsita nengoen, gorputzeko hoditeria libratzeko modu bat zela, alegia. Alkoholikoaren kontuak, badakizu", dio.

Edanean ematen zuen eguna, eta horrek osasun arazoez gain, bestelako arazoak ere ekarri zizkion. 2006tik 2009ra bitartean, sei epaiketa izan zituen, denak ere Poliziaren aurka egiteagatik. "Min handia egin nien elgoibartarrei eta damututa nago. Horregatik, BARRENE bitartez barkamena eskatu nahi diet iraindu edota mindu ditudan guztiei. Kallean builaka aritzen nintzen, eta edanda nengoen oso oldarkorra nintzen", aitortu du. Urte eta erdiko kartzela zigorra dauka pendiente, eta urtarilaren 29an ingresatu behar zuen Martutuneko kartzelan, baina Proyecto Hombre erakundearen eskariz, prozesua geldituta dute. Hala ere, Rafaelek argi dio bera ez dela kartzela saihesten ahaleginduko: "Egindako kaltea ordaindu behar badut, ordainduko dut. Iraganean egindako guztia ordaintzeko prest nago, eta halaxe jakinarazi diot epaileari ere".

Hamaika arazo izan ditu justiziarekin eta poliziarekin, eta hain justu ere, atxiloaldi batean ikusi zuen "argia". 2008. urte amaieran izan zen, Ertzaintzaren Eibarko komisaldetxean. "Nire bila 35 bider irten behar izan zirela ohartarazi zidan ertzain batek eta aurrekari asko pilatzen ari nintzela. Zer pentsatua eman zidan hark", gogorazi du. Eta laguntza eskatu zuen. Behin eta berriz esana zioten etxekoek eta ingurukoek laguntza beharra zuela, baina ordura arte sekula ez zien jaramonik egin, eta beti ukatu izan zuen laguntza hori. "Nire emazteak zerua irabazita dauka. Hemen garbi dago alkoholikoak berak onartu behar duela arazo bat duela; osterantzean, jai dago. Kalabozoetan egon nintzen aldiak batean ama negar batean etorri zitzaidan, baina ama hala ikusteak ere ez zidan bihotza uzkuritu", esan du.

Errehabilitazioa, prozesu luze eta gogorra

Etsi-etsian, Osasun Mentaleko Zentrora jo zuen, eta han erakutsi zioten jarraitu beharreko bidea. 2009ko maiatzaren 20an ingre-

satu zuten Donostiako San Juan de Dios ospitalean, eta hantxe hasi zuen errehabilitazio prozesua, bide luze bezain gogorra. "Hilda nengoen ordurako. Odolean ez nuen plaketarik, D bitaminarik ere ez, 120 kilotik gora nintzen, eta gibela puztu-puztuta neukan", nabarmendu du. "Ikaragarri gogorra" egin zitzaion San Juan de Dioseko egonaldia. "Delirium tremensik ez nuen izan, baina abstinentzia oso gogorra izan zen. Jasanezina. Zer ez ote nuen pasatu!". Hiru hilabete egin zituen han, eta handik Proyecto Hombre zuzendu zuten. Urte eta erdi inguruko errehabilitazioa egin zuen han, eta beste ezeren gainetik, bere burua baloratzen ikasi zuen.

"Barkamena eskatu nahi diet urte guzti hauetan mindu ditudan guztiei"

"Bizia eman zidaten"

Proyecto Hombre sartzeari bat, zuen guztia lagatzera behartu zuten, iraganarekin haustera. Eta mezu garbia jaso zuen han: "30 urtean egiten egon zarena ezin duzu hiru hilabetean ahaztu. Ez izan presarik, eta erne egon, beti dagoelako harri berean bi aldiz jausteko arriskua".

Bi urte gogor pasatu zituen, baina gogorrena iristeke zegoen. "Harrera etxeetan zauden bitartean babestuta zaude. Gogorrena gizarteratzea da, kalera irten eta errealitatea-

ri aurre egitea", dio. Horren harira esan du toxikomanoen aldean alkoholikoek zaila dutela gizarteratzea. "Papelina bat lortzeko 30 euro behar dituzu gutxienez, baina 40 zentimotan litro bete ardo lortu dezakezu supermerkatuan, eta, gainera, legez kanpoko drogen aldean alkohola edatea ondo ikusia dago", zehaztu du. Bizimodu berriari ekiteko, garai bateko poteo lagunak ahaztu eta tabernetik urrun mantenduko duten afizio berriak bilatzea ezinbestekoa dela argi dauka Rafaelek.

Gizarteratzea gogorra egin zaiolako erabaki du publikoki aurpegia ematea eta berak bizitakoa kontatzea. Alkoholaren gatibu izateari laga dakiokela egiaztatu du, eta mezu hori zabaldu nahi du lau haizetara. Presarik gabe eta borondatearekin lortu daitekeela infertutik irtetea. Rafaelek argi dauka: "Laguntza eskatzen ez duen alkoholikoak hiru aukera ditu: zirosiak jota hiltzea edota bere burua hiltzea, kartzelan preso amaitzea edota hil arteko denbora psikiatrikoan pasatzea". Horregatik guztiagatik, alkoholarekin edota legez kanpoko drogekin arazoak dituztenei dei egin die, eta berandu baino lehen laguntza eska dezatela eskatu. Beldurrik ez izateko esan die, eta Alcoholicos Anonimos elkartera edota Proyecto Hombre joateko, "bizitzak merezi duelako".

Proyecto Hombre

(Ategorrieta, 47 Donostia.
943 273 900 / 943 273 690)

Elgoibarko Alcoholicos Anonimos


(Astelehen eta barixakuetan batzen dira Santa Klaran duten lokalean.)

Rafael Rodriguez, Leku-Ederreko parkean ateratako argazkian.



647 lagunek hartu zuten parte Jose Gurrutxaga krosean

Elgoibar Ikastolak antolatuta, Jose Gurrutxaga krosa jokatu zen domekan. 10:30ean hasi, eta eguerdira arte egin zuten saltaka 647 lagunek, bakoitzak berari zegokion ibilbidean. Jose Gurrutxagak berak eman zien hasiera lasterketa guztiei, eta emozioz beteriko uneak bizi zituzten Plaza Handian batu ziren herritarrek. 2003an eta 2004an jaiotakoak izan ziren korrika egiten lehenengoak, eta nagusien lasterketak eman zion amaiera korrika jardunari. Euriaren mehatxupean jokatu zen Jose Gurrutxaga krosa. Une labur batean egin zuen euria, eta lurra irristakor jarri bazen ere, korrikalariak gogor egin zuten saltaka. Marea gorriak hartu zituen herriko kaleak, horixe izan baitzen aurtengorako atera dituzten kamiseten kolorea. Argazki gehiago eta sailkapenak: www.elgoibARREN.net



Ipar Euskal Herrian indarrean sartu da burua burkarekin edo nikabarekin estaltzeko debekua. Emakumeak ezingo dituzte leku publikoetan burua eta aurpegia zapiz estali.

Zer iruditzen zaizu buruko zapia erabiltzea debekatzea?



Esther Alonso
35 urte, psikologoa

Gai konplikatua da. Batetik, iruditzen zait emakumeak zapia janztera behartzea ez dela bidezkoa, eta bestetik, iruditzen zait egoera horretan dagoen emakume bati lege hori aplikatzea ere ez dela justua. Nolanahi ere, iruditzen zait debekua ez dela gauzak aldatzeko bidea. Heziketa da bidea.



Ainhoa Velado
32 urte, langabetua

Erabaki arrazistai ruditzen zait. Bakoitzak libre izan beharko luke zer jantzi erabakitzeko, eta ez dut ondo ikusten debekatzea. Niri ez dit trabarik egiten jendeak zapia janzteak. Egia da hara joaten garenean ere garen moduan onartu beharko gintuzketela, eta ez dutela egiten, baina...



Ricardo Sanchez
51 urte, metalurgikoa

Ez dut ondo ikusten emakume musulmani burua zapiz estaltzea debekatzea. Ez da bidezkoa. Bakoitzak nahi duena janzteko eskubidea dauka. Beste batzuek txapelak jantziko dituzte, edo beste edozer gauza, eta hala izan beharko luke gainera.



Rachida Athmane
29 urte, garbitzailea

Ez dut batere ondo ikusten debeku hori. Nik neure borondatez erabaki dut buruan zapia janztea, eta ez nuke onartuko Frantziak ezarri duen lege berri hori. Erlijio ohitura bat da gurea. Nire kasuan, betidanik ikusi dudana zerbait da, eta ez dit inolako trabarik egiten.


■ SEMAFOROA



Bernardo Ezenarro kaleko igogailua alferrikako gastua iruditzen zait: "Hobe lukete aparkatzeko leku gehiago egitea, anbulategiko gaueko larrialdi zerbitzuak berriz ezartzeko eskatzea, edota igogailua eraikitzeke eta bazterrak loraz josteko erabiltzen duten diru guzti hori benetan behar den gauzetarako erabiltzea. Horiek bai direla Elgoibarren benetako beharrak, eta ez igogailua. Bizitza osoan oinez igo gara San Rokera, eta inori ez zaio ezer gertatu. Gainera, umeek jolaserako erabiltzen dute igogailua. Etxetik ikusten ditut gora eta behera, jolasean. Inork badaki zenbateko gastua den hori? Non daude ume horien gurasoak? Bi egunetik behin gelditzen da gainera igogailua. Birziklatzeko eta energia aurrezteko esaten digute guri, eta eurek zer egiten dute?"



Eskerrik asko igogailuaren goiko parkean baranda jartzeagatik: "Joan zen astean kexa jarri genuen, eta oraingoan txaloak ematea tokatzen zaigu. Eskerrik asko Udalari, Bernardo Ezenarro kaleko igogailu berriaren goiko parkean baranda jartzeagatik. Inguru hartan bizi den jende askok eskertuko du lan hori. Izan ere, gazteentzat bi eskailera horiek igotzea erraza den arren, jende nagusi asko dago inguru horretan, eta zailtasun handiak dituzte eskailera horiek igotzeko. Pozten gara gure eskailera aintzat hartu duzuelako".



Zuen kexak, galderek edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibar.koizarra.com 943 744 112

Grupo Eibar nesken taldeak Euskadiko Eskubaloi Txapelketa irabazi du bigarren urtez jarraian

Fase finaleko hiru partidak irabazi dituzte elgoibartarrek

Euskadiko Eskubaloi Txapelketa Elgoibarren jokatu zen joan zen asteburuan, eta Sanloko Grupo Eibar taldea nagusitu zen. Lau taldek jokatu zuten fase finala: Grupo Eibar Sanlo, Aiala Zarautz, Errotaberri Ermua eta Atletico Zarautz. Elgoibarko taldeak fase finaleko hiru partidak irabazi zituen, eta bigarren urtez eskuratu du Euskadiko Eskubaloi Txapelketa.

Horrez gain, Sanloko bi jokalarik bakarkako sariak jaso zituzten. Ainhize Etxeberria izan zen txapelketako golegilerik onena, eta Ane Uraini eman zioten jokolari onenaren saria. Era berean, Euskadiko Eskubaloi Federazioak oroigarri bat eman zion Sanlori, txapelketaren antolakuntza onagatik, eta Carlos Ayestak jaso zuen saria.

Orain, Espainiako Txapelketa da Grupo Eibar Sanloren hurrengo erronka. Apirilaren 29tik maiatzaren 1era jokatu da Espainiako Eskubaloi Txapelketako Iparraldeko sektorea, eta han izango da Grupo Eibar Sanlo.

Kirol asteburua

Datorren asteburuan Euskadiko fase finala jokatu da Ermuan, kadeteetan, eta Elgoibarko Lauko taldeak hartuko du parte. Era berean, bihar, Mendaro, Deba eta Elgoibarko 43 neska-mutiek hartuko dute parte Sanlok antolatutako ekintzetan. Plaza Handian jokatu dituzte partidak, 9:30etik aurrera. Eguerdian bazkaria egingo dute, eta 39 umek pasatuko dute asteburua Aubixan.



Ainhize Etxeberria golegilerik onena, eta Ane Uraini jokalarik onena.

Maite Maiorak hirugarren egin du Hondarribiko Talaia Bidea mendi lasterketan



Maite Maiora mendarorak hirugarren egin du Hondarribiko Talaia Bidea mendi lasterketan. 29,5 kilometroko ibilbidea egin behar zuten lehenengo hogeikilometroetan. Gero, baina, behera egin zuen, jateko eta ur gutxi eraman zuelako, eta azkenean, hirugarren lekuan amaitu zuen proba. Datorren asteburuan Manttale mendi maratoni erdian hartuko du parte mendarorak, Beran (Nafarroa).

Padel ikastaroak

40-15 elkarteak padel ikastaroak antolatu ditu Kirol Patronatuaren laguntzaz, eta apirilaren 20ra arte egongo da izena emateko aukera. Hogei orduko ikastaroa izango da, eta astearteetan eta ostegunetan eskainiko dituzte saioak, Mintxetan. Bi maila egongo dira aukeran: hasiberrirentzako izango da bata, eta maila altuagoa dutenentzako, bestea. Patronatuko bazkideek 92 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek 100, 90 euro. Izenematea Olaizaga kiroldegian egin behar da.

Concepto Createch areto futbol taldea Nazional A mailara igo da

Lau partida falta dira denboraldia amaitzeko



Concepto Createch areto futbol taldeak Nazional A mailara igotzea lortu zuen joan zen asteburuan. Puntu bat behar zuten elgoibartarrek mailaz igotzeko, baina ez ziren berdinketaren bila irten, eta Basauriko Soloarte taldearen kontra 2 eta 4 irabazi zuten. Emozio handiko partida izan zen, besteak beste, etxekoek sartu zutelako estreinako gola. Elgoibartarrek bi gol jarraian sartu zituzten, eta markagailuan aurretik jarri ziren arren, penaltiz berdindu zuten basauriarrek, lehen zatiaren ondarrean. Bigarren beste bi gol sartu zituzten elgoibartarrek, eta hiru puntuak ekarri zituzten Elgoibarrera.

Denboraldi borobila

Lau jardunaldi falta dira liga amaitzeko, eta elgoibartarrak errekor guztiak hausteko bidean dira. 26 partidatetik 23 irabazi dituzte, bat berdindu, eta bi baino ez dituzte galdu. Gainera, gol gehien sartu (124) eta gutxien jaso (47) dituen taldea da. Era berean, taldeko lau jokalarik 18 urtez azpiko Gipuzkoako selekzioan jokatzeko deitu dituzte: Iker Oñederra, Rodolfo Fortunato, Michael Vidal eta Adrian Ramirez.

Fin aritu ziren Elgoibarko xakelariak Irungo torneoan

Elgoibarko Xake Taldeak Irungo torneoan hartu zuen parte joan zen asteburuan, eta maila ona erakutsi zuten Elgoibarko xakelari gazteek. 2000 eta 2001 urteetan jaiotakoentzako txapelketa zen, eta bost elgoibartarrek hartu zuten parte. Irabazterik lortu ez bazuten ere, bi mailetako finalak jokatu zituzten. Paul Fernandezek eta Markel Kerexetak bigarren egin zuten, 10 urtekoen eta 11 urtekoen sailean, hurrenez hurren. 2001eko mailan, Urko Iriondo, Uraitz Ines eta Josu Untzilla izan ziren gainerako partaide elgoibartarrak.



EMAITZAK

FUTBOLA

Zalla 2 – Haundi 0 (3. maila)
Elgoibar 2 – Tolosa 2 (Erreg.)
Burmendi 2 – Elgoibar 2 (Ohorezko jub.)
Beti Gazte 1 – Elgoibar 0 (Kad. A)
Elgoibar 0 – Eibartarrak 3 (Kad. B)
Elgoibar 2 – Aloña Mendi 0 (Ohorezko inf.)
Arrasate 2 – Elgoibar 4 (Inf. Txiki)

ESKU PILOTA

Udaberri Txapelketa

Eibar 10 – Lagunak 22 (Nag.)
Beloki 14 – Lagunak 22 (Nag.)
Bergara 22 – Lagunak 17 (Nag.)
Lagunak 22 – Beloki 7 (Nag.)
Lagunak 7 – Bergara 22 (Jub.)

Debarroko Txapelketa

Lagunak 22 – Aretxabaleta 8 (Nag.)
Lagunak 22 – Bergara 9 (Jub.)
Lagunak 22 – Aretxabaleta 2 (Kad.)

ARETO FUTBOLA

Soloarte 2 – Concepto Createch Elg. 4 (Nazional B)
King-Kong 5 – Azpeitiko 1 (Jub.)

ESKUBALOIA

Alkorta Elg. 24 – Eskolapios 24 (Sen. mut.)
Bankoa Elg. 27 – Ereintza 17 (Inf. mut.)
Aterpe Elg. 16 – Ormaiztegi 24 (Inf. mut.)
Astigarraga Elg. 21 – Bera Bera 21 (Inf. neska.)
Bera Bera 26 – Ikus Elg. 14 (Inf. neska.)

AGENDA

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Zapatua, 16

16:00 Concepto Createch – Gernika (Nazional B)

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 16

12:30 Elgoibar – Urola (Ohorezko jub.)

16:30 Haundi – Eibar (3. maila)

Domeka, 17

12:00 Elgoibar – Ostadar (Inf. Txiki)

16:30 Elgoibar – Tolosa (Kad. A)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 16

13:00 IMH Elg. – Leizaran (Kad. neska.)

18:00 Beristain Elg. – Ordizia (Jub. mut.)

ESKU PILOTA

Barrakua, 15

22:00 Lagunak – Bergara (Nag.)

190.127,60 euroko dirulaguntza emango dio Udalak Elgoibarko Izarra kultur elkarteari 2011. urtean

laz baino 29.884,40 euro gutxiago jasoko ditu aurten elkarteak

Elgoibarko Udalak 190.127,60 euroko dirulaguntza emango dio Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteari 2011ko proiektuak eta egitasmoak finantzatzeko. Laz baino 29.884,40 euro gutxiago jasoko ditu aurten elkarteak. Dirulaguntza hau bi udal sailetatik bideratuko da aurten ere: Euskara Batzorde-tik 118.000,00 euro, eta Gazteria Batzorde-tik 72.127,60 euro. Guztira, elkartearen aurrekontuaren %28,92 finantzatuko du, beraz, Udalak 2011n, Elgoibarko Izarraren aurrekontua 657.487,42 eurokoa da-eta. Egitasmo eta proiektuak ere ez ditu osotasunean finantzatuko Udalak. Haurrak eta Gazteak Saila %68,2an lagunduko du, Hedabide Saila %24,24an eta kultur jarduerak %40,92an.

Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak esker-rrak eman nahi dizkio Udalari. "Udalaren laguntza ezinbestekoa da Elgoibarko Izarraren proiektuak gauzatzeko, eta, aurrerantzean ere, bide beretik segitzeko asmoa azaldu nahi dugu. Izan ere, gure ustez, ezinbestekoa da administrazioaren eta herri ekimenaren arteko elkarlana, haur eta gaztetxoek aisi hezitzailea indartu, eta euskara eta euskal kultura gure herrian sustatu nahi baditugu", adierazi dute elkarteko arduradunek.



DIRULAGUNTZAK PROIEKTUKA:

- | | |
|--|--|
| - BARREN astekaria
(57.500 euro) | - Euskara errefortzuak
(14.000 euro) |
| - <i>elgoiBARREN.net</i> webgunea
(6.500 euro). | - "Elgoibarko gazteak eta euskara" ikerketa (9.300 euro) |
| - Atxutxiamaika
(37.747,6 euro) | - Kultur jarduerak
(8.700 euro) |
| - Haurrak eta Gazteak
(34.380 euro) | - DBHn eta Batxilergoan eragiteko jarduerak (5.000 euro) |
| - Kiribilka
(14.500 euro) | - Errekreoan euskal jolasak bultzatzea (2.500 euro) |

Elgoibarko eta Mendaroko musika ikasleak Hernaniko akordeoi topaketan, bihar



Elgoibarko Inazio Bereziartua musika eskolako eta Mendaroko Ameikutz musika eskolako ikasleek Hernaniko akordeoi topaketan hartuko dute parte, bihar. Elgoibartik sei ikasle joango dira, Maite Janeiro irakasleekin: Aitor Kortazar, Egoitz Maiora, Irune Leal, Nere Babarro, Maialen Marin eta Ana Babarro. Mendarotik, bestalde, Naia Fernandez eta Marina Rico joango dira. Guztira 200 soinu ikaslek eta koroko ehun abeslarik hartuko dute parte ekitaldian.

Gidak, haur elebidunen eta eleanitzen gurasoentzat

Udaleko Euskara Batzordeak 0 eta 6 urte bitarteko haur elebidunen eta eleanitzen gurasoentzako gidak banatu ditu herriko ikastetxeetan. Liburuxka horietan eleanitzasunaren inguruko informazio interesgarria eta bigarren hizkuntza ikasterakoan sortzen diren zalantzak argitzeko aholkuak jasotzen dira. Gida horiek euskaraz eta gaztelaniaz argitaratu dira, eta aipatzekoa da euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak ez direla erabat berdinak. Euskarazkoa guraso euskaldunen kezka eta beharrianei erantzuteko prestatuta dago; eta gaztelaniazkoa, berriz, euskaraz ez dakitenentzako.

LANA

ESKAERA

- Neska lanerako prest. Garbiketa lanak egin edo nagusiak edo umeak zainduko nituzke, interna edo orduka. ☎ **646 821 678**
- Emakumea sukalde laguntzaile, garbiketa lanak edo pertsona nagusiak zaintzeko. ☎ **671 343 612 / 943 531 931**
- Emakumea nagusiak edo zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **608 474 923**
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. ☎ **943 742 201 / 652 715 908**
- Emakumea edozein lan egiteko prest. Interna edo orduka. ☎ **616 690 415**
- Gizona edozein lan egiteko prest. Baserrian ere egingo nuke. ☎ **685 212 060**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna. Psikologia eta geriatria ezagutzak ditut. ☎ **635 313 375**
- Gizona eskaintzen da banaketa lanak egiteko. B gida-baimena daukat. ☎ **650 538 274**
- Emakumea sukaldari laguntzaile edo umeak zaintzeko prest. Esperientziaduna. ☎ **610 545 505**
- Emakumea lanerako prest. Interna moduan. Erreferentziak ditut. ☎ **636 581 194**
- Tornugilea lanerako prest. 25 urteko esperientzia daukat. ☎ **609 040 872**
- Emakumea lanerako prest. Garbiketa lanak egin edo umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna. ☎ **650 152 866**
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Orduka. ☎ **648 603 029**
- Neska gaztea nagusiak zaintzeko prest. Orduka. ☎ **608 820 954**
- Neska gaztea nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Interna edo orduka. ☎ **606 226 827**
- Neska gaztea nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. ☎ **662 267 569**

- Neska euskalduna emakumeak zaintzeko edo garbiketarako egiteko prest. ☎ **626 490 986**
- Emakumea nagusiak zaintzeko edo garbiketarako egiteko prest. ☎ **646 506 777**
- Emakumea lanerako prest. Zerbitzari, frutategian, gasolindegian... edozein lanerako prest. ☎ **638 955 012 / 943 201 254**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketarako egiteko prest. Orduka. ☎ **652 446 228**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko prest. ☎ **617 077 922**
- Neska gaztea. Umeak edo nagusiak zainduko nituzke. ☎ **646 977 562**
- Emakumea lanerako prest. Orduka egingo nuke lan. ☎ **628 658 982**
- Emakume euskalduna eskaintzen da bulegoak garbiketarako. ☎ **687 114 707**
- Neska gaztea nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Interna edo orduka. ☎ **690 177 259**
- Emakumea lanerako prest. Garbiketa lanak egin, nagusiak edo umeak zaindu, sukaldari laguntzaile... ☎ **608 474 923**
- Neska lanerako prest. Garbiketa lanak egin, nagusiak edo umeak zaindu, kamarera edo sukaldari laguntzaile... ☎ **609 148 861**
- Emakumea nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Esperientziaduna. Erizain laguntzaile titulua daukat. ☎ **635 355 168**
- Emakumea gauzez edo asteburuetan nagusiak zaintzeko prest. ☎ **618 163 061**
- Emakumea nagusiak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest. Esperientziaduna. Interna moduan edo orduka lan egiteko prest. ☎ **666 008 974**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Esperientziaduna. Interna moduan edo orduka lan egiteko prest. ☎ **698 398 818**

ESKAERA

- Tabernarako zerbitzaria behar da. ☎ **943 741 600**

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA ETA SALMENTA

- Conil. Pisua alokatzen da Aste Santurako eta baita urtean zehar ere. Hiru logela eta garajearekin. ☎ **653 733 457**
- Pisua alokatzen dut Ramales herrian (Kantabria). Aste Santua eta opor denboraldietan. Txalet ederra dugu alokairuan. ☎ **653 733 457**
- Apartamentua alokatzen dut Mendaron. Altzariekina, dena kanpoaldera. ☎ **636 631 632**
- Etxea salgai Elgoibarren. Hiru logela, sukaldea, komuna eta egongela. Berritua, oso egoera onean. Prezio interesgarria. ☎ **688 658 183**
- Pisua salgai Urasandin. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea, egongela handia eta ganbara. Oso argitsua. ☎ **628 525 471**
- Neska gazteak logela hartuko luke alokairuan. ☎ **610 545 505**
- Emakumeak pisua hartuko luke alokairuan. ☎ **608 474 923**
- Emakumeak pisua hartuko luke alokairuan. ☎ **618 734 000**

GARAJEAK

- Garaje itxia salgai Urasandin, Anaiak eraikinean. 13m² + 13m². ☎ **620 856 768**

BESTELAKOAK

- Diruzorroa aurkitu dut kiroldegi inguruan. ☎ **608 201 390**
- Perikitoak ihes egin digu Pedro Muguruza inguruan. Kolore horia dauka. ☎ **943 741 787**
- Auto kargatzailea salgai, kapotarekin. 350 kiiloa. Merkea. ☎ **639 933 281**

ESKERTZA

MARTIN AGIRRE OSTOLAZA



2011ko apirilaren 4an hil zen, 96 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

PAQUI ROA ROSILLO



2011ko apirilaren 10ean hil zen. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





• Zorionak, **Tawfiq**, asteazkenean 2 urtetxo egin zenituelako. Aittita-amama eta bereziki, anaiaren partez.



• Zorionak, **Aitana**, apirilaren 13an 6 urte egin zenituelako. Familiakoen partez.



• Zorionak, **Markel**, astelehenean 6 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familiakoen partez.



• Zorionak, **Juli**, asteartean zure urtebetetze eguna izan zelako. Familiakoen partez, muxu asko. Segi horrela!



• Zorionak, **printzesa**, 7 urte egin dituzulako. Familiakoen, eta bereziki, gurasoen partez.



• Zorionak, **Maialen**, asteazkenean 5 urte egin zenituelako. Muxu handi bat gurasoen, eta bereziki, anaia Markelen partez.



• Zorionak etxeko **andereñoari**, astelehenean 10 urte egingo dituelako. Besarkada bat. Etxekoak, bereziki, Nerea eta Loli.




• Zorionak **bihotz-bihotzez**, familiako guztien partez. 18 urte dituzu dagoeneko! Zoriontsu izan.



• Zorionak, **ptxpiril** Asteartean zure lehenengo urte haundixa! Muxutxuak! Askok maite zaitugu aitak, amak eta etxeko guztiak.



• Zorionak, **Beñat**, astelehenean 6 urte egin zenituelako. Muxu handi bat etxekoen partez.



• Etxeko **pitikiñari**, zorionak, apirilaren 17 an 2 urtetxo beteko dituelako. Amabixto eta aita-txoren partez.



• Zorionak, **Eider**, apirilaren 20an 9 urte, eta gainera oporretan! Ondo-ondo pasa, eta muxuak denon partez.



• Zorionak, gure printzesa **Nahari**, hilaren 23an 2 urtetxo egin zituelako. Muxuak Elgoibarko familiakoen partez.



• Zorionak, **Nere**, zure laugarren urtebetetzean. Muxu handi bat gure sorginari, Ane, Maialen, Aritz eta etxekoen partez.



• Zorionak **Santos eta Maite**, zuen 88. eta 44. urtebetetzeengatik. Muxu asko, familiakoen partez.



• Zorionak, **amama**, 70 urte! Sasoirik onena nik trikitixa jo eta zuk dantzan egitteko. Igandean joango naiz Elgoibarrera, zurekin eta aittittarekin egun batzuk pasatzera. Nahia.

Erretratu bakarrekog agurra: 3 euro. Argazki bikoitza: 5 euro. Hirukoitza: 7 euro. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 euro. Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguztzen eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu. **BARRE**Neko bulegora 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

Lanbroa

**Gosariak
Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak**

Asteleheneetik ostiralera irekita goizeko 6etatik aurrera.
Larunbat eta jaiegunetan goizeko 8etatik aurrera.

Pedro Muguruza, 5 · Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

Ileapaindegia · Estetika · Solarium-a

Idama

Martxoko irabazlea:
MAITE LOIOLA

Apirileko saria:
**ORRAZKERA,
MAKILLAJEA ETA
AZASKAL KARRAKAK
ETA BERNIZA**

Antonio Arrillaga, 6-8 behea (sarrera Santa Ana kaletik)
Tel.: 943 74 40 26

16 zapatua

Ikastaroa

10:00 Makrobiotika ikastaroa
Haizeak Pedro Muguruzako eskolan daukan lokalean. Informazio gehiago, Pitzintxun (943 743 206).

Kirola

9:30 Eskubaloi ekintzak
Elgoibarko, Mendaroko eta Debako 47 umek hartuko dute parte Sanlok antolatutako eskubaloi ekintzetan. Plaza Handian.

17 domeka

Antzerkia

16:30 'Arratoitxo pinpirina'
Glu Glu produktioak taularatuko du, Herriko Antzokian.

18 astelehena

Tailerra

17:00 Arte tailerra
Greziar filosofia. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

19 martitzena

Tailerra

18:00 Literatura tailerra
La dieta del señor Linh liburua aztertuko dute, Udal Liburutegian.



Apirilaren 20an ezagutu herriko lekurik garrantzitsuenak

ARGAZKI RALLY

baten bitartez.

Izenemateak Ludotekan.

Apirilaren 27an

TXURI URDINERA goaz patinatzerara. Izenematea gaztelekuan apirilaren 15a baino lehen.

Prezioa 8 euro.

CORDON VILARCHAO

DEKORAZIOA

Kargo eta bameko estaldura
Zolak ezartzea
Laketara: egut, aurrera, PVC
Pistara orokorra

San Roke, 7 behea
Pol. Glaso - Glosape kalea, 18 - 25 eta 26 moduloak
Tel. 943 749 670

GRUPO PIRALENT

OKINDEGIA

17 domeka EIZAGIRRE	23 zapatua EIZAGIRRE
21 eguena FOTERO	24 domeka FOTERO
22 barixakua IBARRENEA	25 astelehena IBARRENEA

FARMAZIARIK (24 orduz)

15 Garitaonandia-Bidasolo	23 Fernandez
16 Etxebarria (Santa Ana)	Goizez: Etxebarria (Erros.)
17 Etxebarria (Santa Ana)	24 Fernandez
18 Fernandez	25 Fernandez
19 Yudego	26 Etxebarria (Errosario)
20 Zabaleta	27 Yudego
21 Etxebarria (Errosario)	28 Zabaleta
22 Etxebarria (Errosario)	

Fernandez
Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Zabaleta
Kalebarren, 9 (Soraluze)
Tel: 943 751 384

Ibañez -Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel: 943 751 638

ZINEA

«The fighter» 15, barixakua: 22:15 16, zapatua: 19:00/22:15 17, domeka: 19:00 18, astelehena: 21:30	«De dioses y hombres» (Ongarri zinekluba) 23, zapatua: 19:00/22:15 24, domeka: 19:00 25, astelehena: 21:30
«Jainkoez eta gizakiez» (Ongarri zinekluba) 21, eguena: 19:00/22:15 22, barixakua: 22:15	«Gnomeo y Julieta» 24, domeka: 16:30
	«La Chanson de Roland» (Ongarri zinekluba) 28, eguena: 21:30



LAU ARRAZOI ETXEBIZITZA EROSTEKO

Finantza krisia dela eta, etxebizitzaren salmentak behera egin du, eta etxea erosi ezinik egon direnek etxea erosteko aukera aztertzeari ekin diote, prezioak eta interes tipoa ere jaitsi egin direlako.

1. Etxebizitzaren prezioak %16 egin du behera, baina prezioen jaitsiera moteltzen ari da, eta aditu batzuen ustez, ez da asko itxarotea komeni etxea erosteko, nekez jaitsiko direlako prezioak gehiago.
2. Aukera zabala dago: etxebizitzak saltzeko arazoek stockak handitu dituzte, eta saltzaile batzuek etsi-etsian dihardute.
3. Promotoreak deskontuak eskaintzen ari dira, kanpaina bereziak eginez. Kasu batzuetan saltzaileak prezioak negoziatzen ere ari dira.
4. Hipoteken interes-tipoak igotzen hasi dira. Beraz, aukera ona duzu orain zure gustuko etxea erosteko.





ETXEBIZITZA AGENTZIA

**20 URTEKO ESPERIENTZIA ETA
PROFESIONALITASUNA SALTZEKO NAHIZ ALOKATZEKO
DAUDEN HIGIEZINEN KUDEAKETAN**

San Frantzisko kalea, 34 behea
Tel.: 943 748 427 - 699 953 021



INMOBILIARIA ESTUDIO PS XXI
INMOBILIARIA ZERBITZUAK ETA BARNEKO ARKITEKTURA

Tel./Faxa: 943 742 306



- ▲ Sigma, 60m². Bizitzera sartzeko. Egongela, sukalde-jangela, bi logela, komuna, despentsa. Berogailurik gabe. 90.200 euro (15 milioi pezeta).
- ▲ Santa Ana, 70m². Igogailuarekin. Egongela, sukalde-jangela, bi logela, komuna, berogailua. 160.000 euro (25 milioi pezeta).
- ▲ Erdigunean, Pedro Migel Urruzuno, 80m². Berritua, egongela-jangela, sukaldea, bi logela, komuna, berogailua, igogailua.
- ▲ Pedro Muguruza, 70m². Igogailuarekin. Bizitzera sartzeko. Egongela, sukaldea, hiru logela, komuna, berogailua, balkoia, kanpoaldea. 228.385 euro (38 milioi pezeta).



% 100erainoko FINANTZAKETA ESKAINTZEN DUGU AZKEN ETXEBIZITZAK MENDARON

- ◆ **2 eta 3 logelako pisuak eta duplexak**
- ◆ **Material bikaineko etxebizitzak**
- ◆ **Horma-armairuak**
- ◆ **Sukaldea hornitua**
- ◆ **Abantaila fiskalak: B.E.Z.-ik gabe (OTZ %2,5 edo %4)**
- ◆ **Prezioak 193.300-tik aurrera (prezio barnean etxebizitza, trastelekua eta garahea)**

Geure etxebizitza bat erosten baduzu, logela nagusiko altzariak oparitzen dizkizugu edota txeke opari bat MUEBLES INCHAUSTIn trukatzeko (Eskaintza amaiaera Ekainak 30)

BERRIaren eskutik

apirilaren 16an
zure kioskoan



+ 12€



CD-DVD eta
LIBURUXKA

Ene Kantak

Partehartzaileak:

Pirrite eta Porrotx, Gorka Urbizu eta Galder Izagirre (Berri TxarraK),
Urko Oskoz, Eñaut Elorrieta (Ken Zazpi), Jon Barberena, Julio Soto, Estitxu
Arozena, Asier Riesgo, Oier Sanjurjo, Mikel Labaka, Mikel Aranburu, Bittor
Alkiza, Tiko, Juan Martínez de Irujo, Gotzon Barandiaran, Nerea Urbizu...

zonalde "EZ" euskalduneko gurasoentzako dirulaguntza
euskal eskola publiko BERRIaren alde



Aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**